

Irati Aiestaran Intxausti

A maila • 3 saria

Irati Aiestaran naiz, zaldibiarra. Mundu honetan daramatzadan 17 urte hauetan, beti izan ditut lagun idazketa, historia eta musika. Txikitatik hasi nintzen liburuetan irakurtzen nituenen antzeko istorioak idazten, nire irudimena libre utzita. Hala ere, gehien idaztea gustatzen zaidana gertaera historikoetan oinarritutako istorioak dira. Zirrargarria egiten zait nire burua gustuko dudan garai batean kokatu eta bertako biztanle bat naizela irudikatuz idaztea. Idazteaz gain, musika ere oso gogoko dut, gitarra eta txistua jotzen ditut. Esan nezake, nire sentimenduak hitzez azaltzeko ez naizela oso aditua, eta agian, horregatik daukat hain lotura handia bai musikarekin eta baita idazketarekin ere.



EZ GEALA, BA GEALA

Baziren sei hilabete geure herrian zurrumurru bat zebilela. Herri guztiaren ahotan zebilen, baina inor ez zen ausartzen edozeinekin kontu hartaz hitz egiten. Hernanitik gora dagoen leizean, sorginak biltzen omen ziren.

Jendearen esanetan, sorginak deabrua gurtzen zuten emakume gaizto, itsusi eta arriskutsuak dira. Ilargi betea denean, Akelarre izeneko bilerak egiten omen dituzte, eta deabruari umeak ematen omen dizkie jateko.

Herritar guztiak beldurturik ibiltzen ziren: eguzkia sartu orduko etxeetan ezkutatu eta hurrengo egunean eguzkia atera arte ez ziren irteten. Sorgin haien beldur ziren bai, baina beldurra ez ezik, mespretxu eta nazka moduko bat ere bazieten.

Gure familian bost senide ginen, lau mutil eta emakumezko bakarra, neu. Askotan hitz egiten zen mahai inguruan gai honi buruz, baina nik, egia esanda, inoiz ez nuen ezer handirik esaten. Kanean esaten ziren gauza berberak esaten zituzten, oso arriskutsuak direla, deabruaren laguntzaileak direla eta horrelako gauza ugari. Gure ama zen gehien hitz egiten zuena, ezin baitzuen ulertu. Nire anaiek esaten zien helduagoak egiten zirenean beraiek sardea hartu eta joango zirela deabru haiek akabatzeraz.

Oso arraroa zen arren, nik ez nuen gainerakoek bezala pentsatzen. Hamasei urteko neskatxa gaztea nintzen artean, baina ordurako nabaritzen nuen besteekiko desberdina nintzela. Ez nuen pentsatzeko modu bera, ezta gauzak besteek esanda bezala sinisteko ahalmenik ere. Horregatik, sorginen zurrumurrua zabaldu zenean, hori horrela ote zen zalantzak nituen, eta ezin nintzen besoak gurutzatu eta etxean sartuta beldurrez egon. Sorgin horiek benetan zer ziren nire kabuz aurkitu behar nuen.

1570. urteko azaroaren 23an ilargi betea zen, eta nik egun hori aukeratu nuen Sorgintxulo leizera hurbildu eta herrian esaten zena egia ala gezurra zen ikusteko. Arratsaldeko zazpiak ziren, ilunduta zegoen eta hotz ikaragarria zegoen kanpoan, baina zerua oskarbi zegoen. Ordu haietan etxetik ateratzeko amari zer esan pentsatzen jardun nuen arratsalde osoa. Azkenean, nire lagun Graxiren etxera joango nintzela esatea erabaki nuen, abarkak puskatu zitzaizkiola eta konpontzeko laguntza behar zuela.

Baina pentsatzen nuen moduan, amak hauxe esan zidan: “ Baina Maria, erotuta al zaude? Badakizu oso arriskutsua dela ilundutakoan kalera ateratzea, sorginak dabilta. Ai! tuntuna ematen duzu”. Buelta erdia hartu eta nire logelara joan nintzen. Nola edo hala aterako nintzen bai etxe hartatik. Afaldu ostean berriro ere logelan sartu eta leihotik begira geratu nintzen nola atera pentsatzen.

Banekien zer egin: nire guraso eta nebak ohera joan ziren bezain pronto, leihotik salto egin eta leizera joango nintzen.

Iritsi zen ordua. Familiako guztiak ohean zeuden, eta nik leihoa ireki eta salto egin nuen kalera. Lurra ukitu eta segituan ilargi betearen argitik babeska hartu nuen pareta baten itzaletan. Arnasa berreskuratzen ari nintzela, emakume batzuen hizketa hots baxuak entzun nituen. Kontu handiz begiratu nuen ea nortzuk ziren, baina buruan zeramatzaten zapi handi horiek ezin nien aurpegia ondo ikusi. Susmagarria iruditu zitzaidan eta beraien atzetik joatea erabaki nuen.

Zer egiten ote zuten emakume haiek ordu haietan kale gorrian? Nora ote zihoazen? Segituan asmatuko nuen.

Hiru emakume haiek herrian aurrera egiten zuten heinean, etxeetatik emakume gehiago ateratzen eta geroz eta gehiago biltzen joan ziren. Isil-isilik eta hanka pausu biziak emanez igaro zuten herria, baina basora iritsi zirenean, herritik urrun seguru sentituko balira bezala, algaraka eta abesten hasi ziren: “bagarela, ez garela, hamalau mila garela” . Irrika bizian nengoen han gertatuko zena ikusteko, seguru nengoen haiek zirela Sorgin izenez ezagutzen ziren emakumeak.

Basoan barneratu eta nire helburu zen tokira iritsi ziren, Sorgintxulo leizera. Bertan ikusten nuena ezin sinisturik gelditu nintzen: ehun emakume inguru, su inguruan dantzan, ukenduak egiten, ume txikiak elkarren artean jolasten, abesten, eta begi bistakoa zenez, libre sentitzen: gizartetik eta emakumeen gain zeuden eginbeharretatik aske.

Zuhaitz baten atzean nengoen ezkutaturik, begien parean nuena miretsiz. Orduan, hauxe pentsatu nuen: “Ni beraiek bezalakoa naiz, ez dut herriak bezala sinesten, ez dut gure ama bezala gizon baten mende bizi nahi, ez dut beldurrik eduki nahi. Aske izan nahi dut. Hau da nire aukera”.

Arnasa sakon hartu eta zuhaitz atzetik irten nintzen. Ni agertu nintzela konturatu zen bakarra Estebania izan zen, 17 urteko emakumea. Ahots atsegin batez ea nor nintzen eta nondik nentorren galdetu zidan. Hernanitik jarraitu niela eta minutu batzuk beraiei begira igaro ondoren, nik ere talde horren parte izan nahi nuela azaldu nion. Irribarre zabal bat oparitu, eskutik heldu eta suaren ingurura eraman ninduen.

Bertan honela esan zien besteei oihuka: “neskok, Maria gaztea gure artean izango da hemendik aurrera!” Eta beste guztiek irrintzi eta algara artean honela erantzun zuten: “ez geala, ba geala, hamalau mila hemen geala!” Egun hartatik aurrera hitz haiek bihotzean zizelkaturik geratu zitzaizkidan betiko.

1570eko azaroaren 23 hartatik, ilargi betea zen gau guztietan elkartzen ginen Sorgintxulon. Pixkanaka pixkanaka, beraien ohiturak ikasten joan nintzen. Ukenduak egiten, abestiak, dantzak... Gauza mordoa menperatu nituen segituan. Dударik gabe, nire bizitzako unerik hoberenak bizi izan nituen leize hartan urteetan zehar.

Geure bizitzetan gauzak ongiegi zihoazen arren, sorginei buruzko zurrumurruak indar handiagoa hartzen joan ziren. Hori gutxi ez, eta herritarrak emakume batzuk sorgintzat salatzen hasi ziren. Zurrumurru guztiei amaiera emateko eta sorgin guztiok desagerrarazteko, inkisizioa etorri zen Hernanira.

Inkisidoreak hilabete batzuk igaro zituen herrian, herritarrak konplize zituen eta haiek emandako datuetatik abiatuta ikerketak egiten zituen. Sorginok ez genuen ezer txarrik egiten, ez genion inori kalterik eragiten eta ez nuen ulertzen zer egiteko zeukan inkisidore hark Hernanin. Hainbat egun igaro ziren hura herrian zela, eta bi aldiz pentsatu gabe berarengana jo eta pare bat hitz esateko asmoa hartu nuen.

“Ez gara deabruaren laguntzaileak; aske sentitu nahi dugun emakumeak gara. Hilean behin dantza eginez eta abestuz gure barruko korapilo guztiak askatzeko elkartzen gara, eta ez gaituzue geldituko”. Ez nuen gezurrik esan hitz haietan ez, baina akelarreetan parte hartzen genuen emakume guztiok atxilotu egin gintuzten.

Kaiola moduko ibilgailuetan eraman gintuzten Logroñora, animalia basatiak bagina bezala. Herritarren irainak eta kolpeak jasan genituen, eta noski, herritarren artean nire neben nazka begiradak ere jaso nituen. Munduko gizaki madarikatuenak ere ez du merezi jasan genuena eta jasaten ari garena.

Orain hementxe nago, 56 urterekin Logroñoeko espetxean giltzapeturik. Atzo izan ziren epaiketak eta nire kide batzuk eta ni sutan hiltzera kondenatuak gaude. Beste asko espetxean usteltzen utzi eta torturatu egin dituzte. Ez, ez gara sorginak, ez beraiek uste duten deabruak, eta epaileen aurrean horixe aldarrikatu dugulako sutan erre egin behar gaituzte. Baina tira, bizitza guztian preso izatea baino ez al da hobe hiltzea?.

Argi gera dadila emakume askeak izan nahi izateagatik erre edo utzi behar gaituztela kartzelan usteltzen. Milaka lagun aurrean umiliatu, eta su emango digute. Ze bizitza tristea, ezta? Nik ez dut berdina pentsatzen. Zorionekoa Sorgintxulo leizera hurbildu nintzen egun hura, bertan ikasi baitut zer den zoriontsu izatea.

Ez dakit gutun hau egunen batean norbaitek irakurriko duen, baina hala bada, ez errenditu inoiz, neskak Borrokatu ahal duzuen guztia aske izateko, gu bagoaz gure bideari ekingo diozuen esperantzarekin. Emakume guztiok kaiolatu nahi gaituzte, ez geratu inoiz, jarraitu sorgin!

Maria Etxegik idatzia 1610. urtean